

TXOTXAREN ANDRAZKO AHOTSA

KUPELAK IREKITZEN HASTEAN IZUGARRIZKO AURRERAPAUSSA IZAN ZEN SAGARDOTEGIETAKO EMAKUMEENTZAT

Egunero eramaten zioten alabek hamaiketako sagardotegira, baina ez zuten sekula aita ikusten. Bazekiten han ibiltzen zela, etxera bueltan ekartzen zuten ogiz garbitutako kazolatxoak zen horren seinale. Andreak prestatutako hamaiketakoak aise pasatzen zuten sagardotegiko atea, baina, emakumeak berak ez. Gaur egun emakumea ohiko bihurtu da kupel arteko solasaldietan, eta hainbat sagardotegitan txotxaren deiak andrazko ahotsa dauka.

Hernaniko Iparragirre baserrian betitik ezagutu izan dute sagardotegia bertako alabek, Anek eta Arantxak. Ez dakite sagardotegia noizkoa den, baina garbi dakite Iparragirre sagardotegiaren historia idazten hasita, kronikaren parte handia andrazkoen ahots bezala idatzi beharko litzateke. Aitona gazte hil zen eta amona egin zen jabe. Amonak alabari utzi zion, Aneren eta Arantxaren amari. Aita, Antonio, izatez aiarra da, baina Iparragirrera

ezkondu zen. Ez dute semerik izan, Ane eta Arantxa dira etxeko ondorengo bakarrak. Hortaz, eta patuak hala nahi izan duela, Iparragirre sagardotegian emakumea izan da nagusi eta halaxe da gaur egun ere.

«Gure aitari -azaldu du Arantxak- betidanik asko gustatu izan zaio sagardotegiko giroa, batez ere hor biltzen ziren bertsozintza eta musikarengatik. Aita izan da urte askoan sagardotegiko irudi nagusia, baina, guk betidanik egin dugu lana sagardotegian, eta denetarik egin

izan dugu. Aita jubilatuz zenetik geu gara Iparragirre sagardotegiko irudi nagusia». Anek eta Arantxak gustura gogoratzen dute sagardotegian lehenengo emakumea sartu zeneko hura, ordura arte, eta urte luzeetan, beraiek izan baitziren sagardotegiko emakume bakarrak. «Aitak ere pozik hartu zuen eta hasieran emakumei ez kobratzeko agindu zigun, ez zutela sagardorik edaten-eta».

Baina Ane eta Arantxa ez dira sagardotegian aritutako emakumeak bakarrik, hasieratik

deneke ere oso argi izan dute alabak etxekoak zirela, sagardotegiko jabeak zirela, alegia. Arantxak gogoratzen duenez, «upelak irekitzen hastean izan zen pausu izugarria. Emakumea beti egon da sagardotegian, sukaldan edo beti dauka emakumeak. Upelak irekitzea, ordea, zu zeu sagardotegiko jabe eta irudi zarela aitortzea bezalada, eta terreno horretan ez dugu tokirik izan urte luzeetan».

Hasieran lanak ere eman zizkien aitaren tamainara jarritako upeletara iristek, baina badira hamar urte upelak irekitzen jaun eta jabe direla Ane eta Arantxa, aita jubilatuz aurretik ere aritzen zirenetan.

Sagardotegia gizonezkoen mundua ote den galdetuta, «gizartea gizonezkoen mundua da» esanaz erantzun du Anek. Iparragirreko alabek, ordea, ez dute lan handirik izan gizonezkoen munduan tokia hartzeko, eta sekula ez omen dute arazorik izan, «sagardo gremioan ere oso natural sartu da emakumea».

Bai, sagardotegia asko aldatu da. Eta ez horretan bakarrik. «Lehen sagardoa dastatzera etortzen zen jendea sagardotegira, gero etxera eramane beharrek botilak aukeratzera. Aitak semea ekartzen zuen berekin, eta txikitandik erakusten zion sagardoaren kultura hori.

Jose Mari MARTINEZ



Gaur egun oso desberdina da». Orduan ez omen zen sagardo tanta bakarra erortzen lurretan, gaur egun, berriz, ikusi egin daiteke. «Lehengoeak sagardoa maitate egiten zuten. Geuri ere ai-

“

Upelak irekitzen dituen da sagardotegiaren jabe eta irudi. Horregatik, orain arte, gizasemeak aritu izan dira zeregin horretan.

tak horixe erakutsi digu, sagardoa maitatu egin behar dela; eta guk horixe erakutsi diegu gure seme-alabei. Baina ohiturak asko aldatu dira, gu horren kontra aritu bagara ere». Lehen 20 la-

TOLARE
SAGARDOTEGIA
ASOCIACION DE SIDRA NATURAL DE GIPUZKOA

Beba Sidra Natural de Gipuzkoa

gun sartzen ziren Iparragirre sagardotegian, orain 200 baino gehiago kabitzen dira. Lehen abestu egiten zen, orain buila egiten da.

Lehen bezala orain ere, Ane eta Arantxa gustura arituko dira txotx garaietan. Eta, hori bai, noizbait sagardotegian ordena jarri behar bada, baten bati belarrietatik tira egin behar bazaio, hori bi ahizpen egitekoa izaten da. Antoniok esaten duenez, «gizon artean ordena jartzeko hobe da emakumea; horregatik, beti alabak bidali izan ditut beharra zegoenean. Gizonezkoa joenez gero, oraindik harroago jartzeko arriskua dago-eta».


Baserriaren ardatza

Larre-Gain sagardotegian ere emakumea da nagusi, Ixabel Santa Kruz hain juxtu. Bertako alaba da Ixabel eta betidanik ezagutu izan du sagardoa etxean, baina etxeontzat bakarrik. Txotxa orain zazpi bat urte ireki zuten, hasiera hartan baserriari bultzada emateko asmatan laguntza txiki modura, gaur egun baserriaren ardatz nagusienetako bihurtu dena.

Senarrak kanpoan lan egiten duela-eta, Ixabel izan da hasieratik sagardotegiko nagusi, nahiz eta Joxe senarra eta biak jarduten duten sagardotegian lanean. Lehen bere aita Pedro ere aritzen zen, txotxa zabalitzen-eta. Hark bataiatu zuen bazterreko upela emakumezkoen upel izenez, hango sagardoa emakume sagardoa zela esaten zuen-eta. «Urte batean gozo antzera ateratzen upel hartako sagardoa, eta horrexegatik esaten zuen hura emakume sagardoa zela».

Txiki-txikitandik ezagutu ditu Ixabelek sagardoaren gorabeherak, familian denak ibiltzen baitziren lan haietan. Denetik egin izan du, sagarra bildu, bereizi, puskatu, dolarean patsa egin... Hala ere, eta onartzen duenez, aspaldian ez da aritu dolare alde horretan.

Urtarrilaren 17an hasiko dute txotxa Larre-Gainen, sagardo-



Aita jubilatu zenetik, Ana (argazkian) eta bere ahizpa Arantxa dira Iparragirre sagardotegiko jaun eta jabe.

tegienezako urte sasoi gozoena eta, aldi berean, gogorrena dena. Sukaldean eta zerbitzatzen laguntzaile finak izan ohi ditu, ordea, Ixabelek, alabek eta koinatek ez diote-eta hutsik egiten.

«Gure sukaldean emakumea da nagusi, kasualitatez edo. Parrillan, berriz, Joxe aritzen da».

Orain zazpi urte irekitako sagardotegia sasoiko dago eguntan; eta aurrera begirakoari bu-

ruz galdetuta, «auskalo» esanez erantzun du Ixabelek. «Alabak badakite zer den sagardotegian lan egitea, hemen aritzen baitira asteburuetan. Badakite zer nolako lana den; gogorra dela, ale-

gia. Hortik aurrera beraiek erabaki beharko dute honekin jarraitu ala ez, hori beren erabakia da».

Amagoia MUJKA

LIZEAGA

Edan eta eman edatera



TOLARE
SAGARDOTEGIA

SAGARDOA
Sidra Natural

• **LIZEAGA** •

GARZIATEGI Baserria
☎ 46 82 30
Astigarraga - GIPUZKOA